Hernaniko Udala

OSOKO BILKURA 06/2026

HERNANIKO UDALAK 2026KO EKAINAREN 22AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ZIURTAGIRIA

ALKATEA:
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:
Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:
Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Ismael Ganchegui González
Ricardo Crespo Rubio
María Jesús Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

BITARTEKO UDAL IDAZKARIA:
Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

2026ko ekainaren 22an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa bitarteko udal-idazkaria.

Gai zerrenda:
1. 2026-05-26KO OSOKO BILKURAKO 05-2026 AKTA ONARTZEA
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1229 DEKRETUTIK 2026DEKR1498 DEKRETURA.
3. BERRI EMATEA. KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA: 2026 URTEKO LEHEN LAUHILEKOARI DAGOKION FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.
4. LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA.
5. GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA ALDATZEA.
6. BETERRI BURUNTZA ESKUALDEAN INKLUSIO-ESTRATEGIA: UDALA ETA BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEA.
7. JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ARLOKO IKASTAROEN TASAK EGUNERATZEA. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.
8. GUREAK BERDEA SLU-REN ERREKLAMAZIOARI ERANTZUNA HERNANIKO BERDEGUNE, PARKE, ZUHAITZ, LORATEGI ETA KONPOST-GUNEEN MANTENTZE-ZERBITZUARI DAGOKIONEZ (2017PRIR0011).
9. EHBILDU ETA EAJ-PNVREN MOZIA: FORUEN ABOLIZIOA ETA ALKATEEN MUGIMENDUAREN URTEURRENA.
10. INFORMAZIOA ESKATU ETA ELKARTRUKATZEKO PUNTUA.

1. 2026-05-26KO OSOKO BILKURAKO 05-2026 AKTA ONARTZEA

Alkatea: Arratsalde on. Seiak badira, eta gaur ez-ohiko deialdian egiten dugun plenoari hasiera emango diogu.

Lehenengo, ohiko moduan aktarekin hasiko gara. Aktarekin zerbait?

Jaione Aristregi: Bai, kaixo, arratsalde on.

Aurreko osoko bilkuraren azken aktari buruz zerbait esan behar dugu. Batez ere, bertan jasotako edukiari buruz.

8. puntuan, kreditu aldaketarenean, eta gure hitzartzearen ondoren, hirigintza eta ingurumen zinegotziak hartu zuen hitza. Lehenengo paragrafoan, amaiera aldera, honela dio: "proiektua badaukazue, beste gauza bat da ez daukazuela 3D bolumetriko bat ikusteko edo hala ulertzeko gaitasunik".

Hitz horiek gure lanarekiko errespetu faltatzat hartzen ditugu. Udal honetan lan handia egin da tratu onen alde, eta hitzartze honek ez du premisa hori betetzen. Horregatik, gustatuko litzaiguke zinegotziak barkamena eskatzea eta iruzkin hori kentzea.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Alkatea: Ainara, zuri hitza, zuzenean zu aipatu zaituenez.

Ainara Atorrasagasti: Tira, horrela hartu bazen, benetan, barkamena. Ez zen batere hori asmoa. Eta zintzotasun guztiarekin diotsut, esaten nuena da, eta tokatu izan zaidalako 3D ulertzea pertsona batzuentzat. Ohituta gaudenontzat bai, baina ohituta ez duenak, batzuetan, ez du ulertzen. Agian horregatik esan nuen horrela. Ez nekien hala esan nuenik. Baina gaizki ulertu bat baldin bada, benetan, zintzotasunez, barkatu.

Jaione Aristregi: Eskerrik asko.

Alkatea: Gainontzean aktarekin ados? Aurrera, beraz.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1229 DEKRETUTIK 2026DEKR1498 DEKRETURA.

Alkatea: Bigarren puntua ere hilabetero plenora ekartzen dugun puntua da. Dekretuen berri ematea. Kasu honetan, 1.229 dekretu zenbakitik 1.498 dekretu zenbakira. Ez dakit dekreturen baten inguruan badagoen zerbait. Hor argipen batzuk eskatu dira, idazkariak mezu bidez erantzun dituenak. Ez dakit horiez gain beste zerbait aipatzeko, galdetzeko badagoen.

Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

3. BERRI EMATEA. KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA: 2026 URTEKO LEHEN LAUHILEKOARI DAGOKION FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.

Alkatea: Hirugarrena ere berri emate bat da. Hau ere ohikoa izaten da urtearen puntu honetara iristen garenean. Kontu hartzailearen txostena da. Kasu honetan 2026 urteko lehen lau hilerokoari dagokion finantza eta aurrekontuen alorreko informazioa. Hau Antolakuntza Batzordean kontu hartzaileak berak azaldu zuen, esan bezala, lehenengo lau hilabeteen exekuzioaren jarraipena egitea da, txosten guztiak eskura dauzkazue dokumentazioarekin batera zehazten den barruko karpetan. Hemen, esan aurrekontuan aurreikusitako gastu eta sarreren exekuzio-mailak aurreikusi bezala doazela bai zerbitzuei dagokionez, baita diru-laguntzei dagokionez ere. Eta, sarrerei dagokionean, tasa eta zergak ere, aurreikusitako moduan ari direla exekutatzen.

Zehazten den beste kontu bat ere ordainketak egiteko arazorik ez dagoela da eta hauek epean egiteko ere baldintzak betetzen dituela Udalak.

Beraz, hau lau hilabetero egiten den txostena da. Hau da dagokiona urteko lehenengo parte honi. Berri ematea da eta Antolakuntza eta Ogasun Batzordean aukera izan zen galderak egiteko eta ez dakit beste zalantzarik ba ote dagoen.

Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

OSOKO BILKURAN EGINDAKO BERRI EMATEA

Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64 artikuluak, eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 19. artikuluan, xedatzen duten moduan, igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri ematen da.

BAT. 2026-1 lauhileko aurrekontuaren gauzatzea.
Udal taldeei eta Osoko Bilkurari, aurrekontu exekuzioari buruzko datuak, aurrekontu kapitulu eta partida xehetasunarekin. Dokumentazioa:
- Kapituluaren araberako laburpena.
- Partidakako xehetasuna.
- Gastu programakako xehetasuna.
- Inbertsioen xehetasuna.

Dokumentazioa K karpetan: excel taula.

BI. Aurrekontu aldaketak.
2026-KALD-0001/2026-KALD-0002/2026-KALD-0003/2026-KALD-0005.

HIRU. Arau fiskalen betekizuna.
2/2012 Aurrekontu eta Finantza iraunkortasun legeak ezarritako helburuen betekizunari buruzko datu eguneratuak jakinaraztea: Aurrekontu egonkortasuna, Finantza iraunkortasuna

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

eta gastu araua.
Dokumentazioa K karpetan: Kontuhartzailearen ziurtagiria.

LAU. Batez besteko ordainketa epea hornitzaileei.
Aurrekontu eta Finantza egonkortasunari buruzko 2/2012 legeak ezartzen ditu Sektore Publikoaren morositateari buruzko hainbat betekizun. Horien artean, 18,5 artikuluan xedatzen du Kontu-hartzailetza organoak hornitzaileen ordainketa epeari buruzko jarraipena egingo duela, Sektore Publikoaren kontratazioari buruzko 3/2011 Errege Dekretuak xedatzen duen 30 eguneko ordainketa epea betetzen dela ziurtatzeko.
Dokumentazioa K karpetan: Kontuhartzailearen ziurtagiria.

BOST. Kontuhartzailearen eragozpen oharrak:
Eragozpenik: Ez dago informatzeko eragozpen oharrik.
Iraungitako kontratazio espedienteak:
2026DEKR0062/2026DEKR0224/2026DEKR0555/2026DEKR0884/2026DEKR1148

DOKUMENTAZIOA:
K:\10_INFORMAZIO EKONOMIKOA\10.4-AURREK-EXEKUZIOA\2026-1-LAUHILEKOA

Udal honetako 2026ko ekainaren 11ko antolaketa batzordean burutu zen ere Berri ematea.

4. LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA.

Alkatea: Laugarren puntura pasako gara. Lanpostu-zerrenden aldaketa onartzea da eta Musika Eskolari dagokionez aldaketa hau, Asierrek azalduko digu.

Asier Mingo: Batzordean aipatu bezala, Musika Eskolako zuzendaritza batzordearekin eta klaustroarekin adostutako neurri batzuk hartu behar genituen, aurrera begirako Musika Eskolari aldaketa batzuk egiteko. Aldaketa honetan, batzordean esan bezala, herriko eragileei gerturatzeko aukera bat ikusten genuen, herrian ditugun behar batzuei erantzuteko eta, azkenean, guk Musika Eskola ulertzen dugulako, baita ere, herrian eragiteko beste eragile bat gehiago bezala.

Horregatik, RPTan aldaketa batzuk egin behar dira, egungo egoerari gehiago gerturatzeko eta, batez ere, aurrera begira daukagun ideia eta planean zehaztapen horiek behar ditugulako.

Alkatea: Ez dakit honen inguruan zerbait badagoen. Batzordean ere azalpenak eman ziren... Galderarik edo aipatzeko zerbait gehiago badago? Ez? Bozkatzera pasako gara orduan zuzenean. Lanpostu-zerrendaren aldaketaren aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO ERABAKIA

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2026ko ekainaren 18ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **AHO BATEZ** erabaki du

Lehenengoa: Hernaniko Udaleko 2026ko Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketaren proposamena onartzea.

Bigarrena: Hernaniko Udaleko 2026ko Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Hernaniko Udaleko web orrian (www.hernani.eus) argitaratzea.

Hirugarrena: Ebazpen hau langileen ordezkariei jakinaraztea.

5. GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA ALDATZEA.

Alkatea: Bosgarren puntura pasako gara. Kasu honetan Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzarren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak armonizatzeko erreglamendua aldatzea da. Hau Ainarak azalduko digu.
Ainara Atorrasagasti: Arratsalde on.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Gipuzkoako garraio publikoaren araudian aldaketa batzuk egin dira eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan gauden administrazio guztiek arau berdinak ezartzea denez helburua, hemen gure hiribusaren arauak eguneratzeko proposamena dakarkigu.

Kasu honetan, hiru aldaketa nagusi jasotzen dira. Alde batetik, Mugi txartel pertsonalizatuari buruzko zehaztapen txiki batzuk eguneratzen dira; bestetik, haur-kotxeei dagokionez, lehen umea kotxean ez bazen joaten kotxea derrigorrez tolestuta eraman behar zen eta orain aldatu egingo da; eta, azkenik, etxeko animalien garraioa modu argiagoan arautzeko puntua. Azken hau da, berez, berritasun handiena edo gehien aldatzen dena. Eta hemendik aurrera etxeko animaliak, txakurrak, katuak eta hudoak, garraio publikoan sartu ahal izango dira, beti ere segurtasun eta bizikidetza baldintza batzuk betez. Eta hori da hemen arautzen dena.

Orduan, hemen egingo duguna da, berez, Gipuzkoa mailan adostutako aldaketa hauek gure araubidera ekartzea.

Alkatea: Ez dakit honen inguruan galderarik, aipamenik edo beste zerbait badagoen. Ez? Bozkatzera pasako gara, orduan. Ez dut izenburu osoa errepikatuko, baina Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan zerbitzu publikoak armonizatzeko erreglamendua aldatzearen aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO ERABAKIA

AURREKARIAK
Goiburuan aipatutako harmonizazio-erregelamenduaren jatorria eta oinarria 2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko lankidetza-hitzarmenak dira, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari atxikitutako erakundeek sinatutakoak.

Horren helburua: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazio publikoen titulartasuneko erabilera orokorreko errepideko bidaiarien garraio erregularreko zerbitzu publikoa modu bateratu eta homogeneoan arautzea. Eta aplikazio-eremua, erabiltzen dituzten pertsonak eta garraio publikoaren zerbitzua ematen duten operadoreak.

ALDAKETAREN FUNTSA
Egia da bai Gipuzkoako gizartearen bilakaerak bai MUGI sistemak berak beharrizan berriak sortu dituztela, eta, horien ondorioz, Erregelamendua erreformatu behar dela, adostasuna eta ahalegin komuna eskatzen duena, eta ezinezkoa da berehala ekitea. Hala ere, animalien bidaien arazoekiko sentsibilitatea dela-eta, aldaketa partzial hori egin nahi da, zerbitzu unibertsal baten aldeko apustua eginez, pertsona guztiak garraio publikora sartu ahal izan daitezen, gizarte osoaren bizi-kalitatean eragina izango duen testuinguru adiskidetsu, seguru eta erosoan.

Gauzak horrela, honekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen da Erregelamenduaren beraren Jarraipen Batzordearen adostasuna 2026ko otsailakxxan izandako sesioan eta horren ondorioz, aho batez emandako aldeko irizpena geroxeago aipatuko dien puntuetan.

Azkenik, Erregelamenduaren beraren Xedapen Gehigarriaren hirugarren atalean ezartzen denez, Erregelamenduaren beraren Jarraipen Batzordearen eginkizunak izango dira, besteak beste, Erregelamenduaren aplikazioa aztertzea eta ebaluatzea, eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiari Erregelamendua aldatzeko proposamenak aurkeztea.

Aurrekoa oinarri hartuta, erregelamenduaren jarraipen-batzordean adostutako aldaketak aurkezten zaizkio Batzarrari. Eta ziurtatzen dut, GGLAko idazkariorde eta batzordeko kide gisa, proposatzen diren aldaketak aho batez hartu eta aldeko irizpena dutela.

ALDAKETAK

LEHENENGOA: Zioen azalpena. Erregelamenduaren hasierako argitalpenetik gehituz joan diren operadoreak eguneratzea

BIGARRENA.- **12. artikuluan** Mugikortasun urriko bidaiarien tarifa-araubidea eta **44. artikulua.** Garraio-titulu balioduna eramateko betebeharra, "pertsonalizatua" terminoa gehitu da MUGI txartelari egindako erreferentzia guztiekin batera.

HIRUGARRENA. 19. artikuluan, Umeen kotxe eta aulkietarako sarbidea, hurrengo esaldia kentzen da:

“Adingabea garraiatzen ez duten haur-kotxe edo -aulkiak tolestuta eraman beharko dira.”

LAUGARRENA. 21. artikulua. Konpainiako animalien sarbidea, honela idatzita geratzen da:

“Baimena ematen zaie etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legean halakotzat definitutako konpainia-animaliei, txakurrak, katuak eta hudoak sartzea barne.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Animaliek beren ekintzen erantzule den pertsona batek lagunduta bidaiatu beharko dute

b. Animaliak kaiola, ontzi edo homologatutako beste edukiontzi itxi baten barruan eraman beharko dira nahitaez, zaintzailearentzako eserleku gehigarririk izan gabe eta haien usain edo zaratagatik eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horri buruzko eztabaidarik izanez gero, gidarien irizpidea nagusituko da. Zaintzaile bakoitzeko ontzi baterako sarbidea mugatzen da

c. Maletategia duten ibilgailuetan, abereek bertan joan beharko dute nahitaez, kaiola, jasotze-elementu edo gailuz itxitako beste edukiontzi homologatu baten barruan, gorozkiak gordetzeko eta kentzeko.

d. Txakurrek zaintzailearen besoetan bidaiatu ahal izango dute, baldin eta eserlekuaren zabalera edo ibilgailuaren plataforma gainditzen ez badute. Bi kasuetan, animaliaren ezaugarrietarako egokia den uhalaren bidez lotu beharko dira, uneoro zaintzailearekin kontaktu fisikoan egon dadin, muturrekoa, baimendutako albaitaritza-zentro batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat dutela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-baldintzetan eta segurtasun-baldintzetan. Gidariek animaliaren osasun-txartela eskatu ahal izango dute, animaliaren gutxieneko higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela adierazten duten zantzuak daudenean edo animaliarekin lotutako edozein motatako eztabaidak sortzen direnean.
Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.

e. Animaliek ezin izango dute inola ere bidaiatu gaueko zerbitzuetan

f. Debekatuta dago animaliak garraio publikoan sartzea higiene- eta osasun-baldintza eskasetan eta/edo sartze horrek ibilgailuen garbitasun-baldintzak aldatzea edo beste erabiltzaile batzuei eragozpenak eragitea dakarrenean.

g. Pertsona bakoitzeko animalia bakarra onartuko da.

Ibilgailu baten plataforman gehienez ere bi animalia bidaiatu ahal izango dira aldi berean.

h. Eramailearen erantzukizuna izango dira animaliak eragin ditzakeen kalteak, salbu eta hirugarren batek edo garraioen enpresa operadoreak egiaztatutako erantzukizuna.

i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan."

ALDAKETAK ERREGELAMENDUAN
Mendekotasuna dutenen Txartela
-12. artikulua. Mugikortasun urriko bidaiarien tarifa araubidea

Gehitu: Mugi «**pertsonalizatua»**
-44. artikulua. Baliozko garraio titulua aldean eramateko betebeharra
Gehitu: Mugi «**pertsonalizatua**»

Bularra emateko aukera

-19. artikulua. Haur-kotxeak eta -aulkiak sartzea

Ezabatu: Haur-kotxeek eta -aulkiek tolestuta egon behar dute, haurra barruan ez badago.

Aurreko bileran jasotako aldaketak, animaliei buruz

-21. artikulua. Lagun egiteko animaliak sartzea

Ezabatu: II. eranskina. Lagun egiteko animaliak sartzea

15 URTETIK BEHERAKO ADINGABEEK DOAN BIDAIATZEA
GFAri helaraziko zaio sistema garatu behar dela adingabeei doako bidaia txartelarekin balioztatzeko aukera emateko
MUGIKORTASUN MUGATUA DUTENEN IRISGARRITASUNA
-Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako eserleku berriak eskailera mailarekin
Ibilgailu berrietan saihestu

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

-Baliozkotze makinak gehiegizko altueran Ibilgailu berrietan saihestu eta oraingoetan konpontzen saiatu
-Bidaiariak hartu eta uzteko geralekuen irisgarritasuna
Gogorarazi geralekuetan inklinazio sistema+arrapala erabili behar direla, gurpil aulkiak sartzeko Ibilgailuek bidaiariak geralekuan bertan uztea
-Errekaldeko geralekuaren irisgarritasuna
Donostiako Udalak aztertuko du ea hura hobetzeko egin gabeko jarduketaren bat geratzen den
-Doako laguntzaileentzako txartelak, Bilboko aireportura joateko
Avanzak inprimakia webgunetik deskargatzeko eta postaz bidaltzeko aukeraren berri eman du

6. BETERRI BURUNTZA ESKUALDEAN INKLUSIO-ESTRATEGIA: UDALA ETA BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEA.

Alkatea: Seigarren puntura pasako gara. Kasu honetan, Beterri-Buruntza eskualdean inklusio estrategia Udala eta Beterri-Buruntza Mankomunitatearen arteko lankidetza hitzarmena onestea da.
Hau bada Beterri-Buruntzako sei udalerriok hilabeteetan lanean ari garen kontu bat. Inklusio bazterkeria egoeran egon daitezkeen pertsonei inklusio zerbitzu bat amankomuna ematea. Ikusten dena da herri bakoitzak bere estrategia propioa edukitzeak, zeinak ondoko herrikoarekin lotura ez daukan, inongo zentzurik ez duela; eta eskualde mailako estrategia komun batek behar duela izan. Hala zehazten du, baita ere, 2008ko Zerbitzu Sozialen legeak eta, baita 2015eko zerbitzu zerrendak ere. Hortaz, Hernanitik nolabait lideratuta lanketa hori hasi dugu eskualdeko sei herriekin eta egin duguna da hitzarmen bat adostu, herri bakoitzak ere gure plenoetatik pasako duguna, eskualdeko inklusio estrategia izaki, Beterri-Buruntza Mankomunitatetik trakzionatzen hastea. Udaletako teknikariek eginda, baina erakundea Beterri-Buruntza Mankomunitatea izatea.

Tartean, hemen ere ekainean Europako diru-laguntza garrantzitsu bat aurkeztu dugulako proiektua eta, horretan, Beterri-Buruntzatik egiteak lanak errazten dituelako edo leku hobe batean jartzen duelako proiektu hori eta diru-laguntzarako kandidatura hori.

Esan bezala, sei herrien artean teknikarien artean oniritziak emandako hitzarmen testu bat da. Akordio politiko erabatekoa dagoena, eta hori da formalki pleno bakoitzetik pasa behar duguna. Denek, seitik bostek pasako dugu orain, ekaineko plenoan, herri baten kasuan hilabetearen erdialdera egiten duelako, uztaileko lehen bi asteetan pasako du.

Ez dakit honen inguruan galderarik edo badagoen. Zerbait aipatzeko... Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara. Beterri-Buruntza eskualdean inklusio estrategia Udala eta Beterri-Buruntza Mankomunitatearen arteko lankidetza hitzarmenaren aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO ERABAKIA

Hitzarmenak Beterri-Buruntzako udalerrien eta Mankomunitatearen arteko lankidetza egonkorra ezartzen du, eskualde osorako gizarte-inklusio politika bateratu bat zuzendu eta garatzeko, baliabideak koordinatuz eta gizarte-bazterketa egoerei modu eraginkorragoan erantzuteko. Horregatik, Hernaniko udaleko Gizarte zerbitzuetatik beharrezkoa ikusten dugu hitzarmen hau sinatzea; bazterkeria egoerei bere osotasunean egiteko aurre zerbitzuaren oinarria izango baita
Bazterketaren gaia udal eskumeneko zerbitzua izanik ere, mankomunitate mailako antolakuntza aukera ematen du bazterkeria-egoeran dauden pertsonak erantzun integralagoa, espezializatuagoa eta eraginkorragoa emateko, pertsonen beharrei eta eskubideei erdigunea emanez.

Aplikatu beharreko legedia.
— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
— 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituena.
— Beterri Buruntza Mankomunitatearen estatutuak.
— 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
— 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa
Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko ekainaren 18an aho batez emandako irizpena

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Hernaniko Udala

Horiek horrela **Herrnaniko Osoko bilkurak aho batez onartu du**

Hitzarmen akordioaren dokumentua onartzea

7. JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ARLOKO IKASTAROEN TASAK EGUNERATZEA. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.

Alkatea: Zazpigarren puntura pasako gara. Jarduera fisiko eta kirol arloko ikastaroen tasak eguneratzeari dagokiona da eta Asierrek azalduko digu hau ere.

Asier Mingo: Batzordean esan genuen, baina tira, pixka bat azaltze aldera, tasak eguneratu behar genituen, batez ere eskaintza berriari egokitzeko. Hurrengo ikasturterako badaukagu berrikuntzaren bat edo beste gure kirol eskaintzan eta hori aurrera eramateko aldaketa batzuk egin behar genituen bai ala bai. Aldaketa hauek egiteko tasetan ere zerikusia zuten gauza batzuk ukitu behar ziren. Horiek denak aurkeztu genizkizuen eta orain horiek onartzeko dakarkigu puntu hau.

Alkatea: Eskerrik asko, Asier. Ez dakit honen inguruan zerbait ba ote dagoen aipatzeko. Ez? Zuzenean bozkatzera pasako gara orduan.

Behin-behineko onarpena ematea izango litzateke. Jarduera fisiko eta kirol arloko ikastaroen tasak eguneratzeari. Beraz, honen aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO ERABAKIA

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko ekainaren 18an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Herrnaniko Osoko bilkurak aho batez onartu du**

Lehenengoa; Hernaniko Udaleko Osoko bilkurak 2026ko otsailaren 24an egindako bilkura onartutako 2026-2027 ikasturteko tasen ordenantza publikoko 16.puntuan, Hernaniko udal kiroldegiko ikastaroak.2026-2027 ikasturte atalean, ondorengo aldaketa onartzea.

Bigarrena; C.2. Fitnes jarduerak puntuan onartuta dauden tasak kendu eta ondorengo testua txertatu.

	Egun 1	2 egun	3 egun
Prezioa/hilabete (abonatuak)	16,70€	33,40€	50,00€
Prezioa/hilabete (ez abonatuak)	25,00€	50,00€	75,00€

8. GUREAK BERDEA SLU-REN ERREKLAMAZIOARI ERANTZUNA HERNANIKO BERDEGUNE, PARKE, ZUHAITZ, LORATEGI ETA KONPOST-GUNEEN MANTENTZE-ZERBITZUARI DAGOKIONEZ (2017PRIR0011).

Alkatea:Zortzigarren puntura pasako gara. Gureak Berdea enpresak egindako erreklamazio bati dagokiona da eta hau Urkok azalduko digu.

Urko Lazkoz: Kaixo, arratsalde on.

Dakizuen bezala, pasa den urtean ere berdina egin zen. Hau da, kontratu berria egin bitartean Gureak Berdea enpresak eskatutako diru ordainketa bat egitea, nolabait kontratu gabe ginelako konpentsazio bat eskatzen zuen kontratu berria sinatu bitartean. Eta orain eskatu dena da azken bi hilabete horiek, urtarrila eta otsailekoa, bete dadin eskaera egin zuen eta onartu zitzaion bezala, hori bideratzea izan da. Bere balioa osotasunean 14.000 €-koa izan da.

Eta, aprobetxatzen dut esateko, zorionez, gaur-gaurkoz dena dago behar den bezala eta kontratu polita daukagu. Eta oso ondo ari dira lanean.

Alkatea: Eskerrik asko, Urko. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko badagoen. Ez badago ezer, hau ere bozkatzera pasako gara. Gureak Berdeak egindako erreklamazioari emandako erantzunaren aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO ERABAKIA

Aurrekariak

- 2017ko azaroaren 8an formalizatu zen Hernaniko berdegune, parke, zuhaitz, lorategi eta konpost-guneen mantenu zerbitzuaren kontratua (2017PRIR0011 espedientea) GUREAK BERDEA, SLU eta

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Hernaniko Udala

Hernaniko Udalaren artean. Kontratuaren iraupena 2 urtekoa zen, beste bi urtez luzagarria urtez urte eta prezioa 481.426,00 €/urteko (BEZ barne).

- Luzapen guztiak agortu ondoren, kontratua 2021eko urriaren 31n amaitu zen. 2021eko azaroaren 4an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen kontratuaren aparteko luzapen bat egitea kontratu berria sinatu arte eta gehienez ere 9 hilabetez. 2021eko abenduan Udalak erabaki horren berri eman zion GUREAK BERDEA SLU enpresari.

2025eko uztailaren 24an, GUREAK BERDEA SLU enpresak, aparteko luzapen horren amaiera datatik (2022ko uztailaren 31tik) 2025eko abenduaren 31 arte emandako zerbitzuengatik konpentsazio ekonomikoa aitortzeko eskaera aurkeztu zuen Udalean, tarte horretan kontraturik gabe zerbitzua ematen jarraitu zuelako.

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak (dagokigun kasuan bera baita kontratazio organoa) 2025eko urriaren 28an egindako bilkuran erreklamazioa onartu eta epe horri dagokion 182.084,42 €ko (BEZ barne) kalte-ordaina ordaintzea erabaki zuen.

2026ko maiatzaren 29an, GUREAK BERDEA SLU enpresak, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 27 arte (biak barne) emandako zerbitzuengatik 14.247,25 €ko konpentsazio ekonomikoa aitortzeko eskaera aurkeztu du, tarte horretan kontraturik gabe emandako zerbitzuan izandako gainkostuak eta kalte ekonomikoa beraiek ez jasateko eta Hernaniko Udala bidegabeki aberastea saihesteko.

2026ko ekainaren 16an Zerbitzu Publikoen Sailaren arduradunak eskaeraren inguruko txostena eman du. Balorazio zehatza eta arrazoiak aipatutako txostenean daude jasota, eta besteak beste, hauxe adierazten da:

"Erreklamazioa aztertu ondoren, honako hauek adierazten ditut:

• Egia dela, Gureak Berdeak SLUk dioen bezala, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzua ematen jarraitu zutela, kontratuz kanpo, 2017-2022 aldian eman zen baldintza beretan eta kontratua indarrean zegoenean fakturatzen zuten hileko kopuru bera fakturatzen jarraitu zutela.

• Ematen zuten zerbitzua funtsezkoa zela, eta 2022-2025 epean zerbitzuaren kontratu berririk lizitatu ez izana, arrazoi ezberdinak zirela medio, ezin zaiola Gureak Berdeak SLUri egotzi, baizik eta Udalari.

• Enpresak lankidetza eta fede oneko jarrera izan duela hasieratik.

• Epe horretan langileen kostuak gorakada nabarmena izan zuela, bereziki 2021etik aurrera izandako KPIaren igoeren ondorioz. Bestalde, esan beharra dago 2023komaiatzaren 16an GAOn Gureak Berdeak SLUren hitzarmen kolektibo berria argitaratu zela, eta hitzarmen berriak soldaten igoera nabarmena ekarri zuela, KPIaren gorakaden gainetik.

• Eskatutako kalte-ordainaren kalkulua bat datorrela argitaratutako KPIaren urtez urteko igoerekin.

• Gureak Berdeak SLU-k aurreko kontratuari dagozkion KPI igoerak aplikatuta 471.971,42 €-tan baloratu duela zerbitzu osoaren kostua, eta kalte-ordainaren € zenbatekoa kostu eguneratu horretan oinarritu duela.

• Erreferentzia gisa adierazi beharra dagoela, 2026-2030 urteetarako esleitu den zerbitzuaren kontratu berriaren kalkulu ekonomikoan, aipaturiko hitzarmen kolektibo berria aintzat hartuta egin dena, kontratu berria hasi aurretik zegoen plantillaren kostua, 2026ko prezioetan, 447.690,34 € -tan estimatu dugula. Eta kopuru horri aldakorra den absentismoa, esplotazio gastuak eta gastu orokorrak gehitu behar zaizkiola.

• Beraz, erreklamazioa guk plantillarentzat bakarrik kalkulatutako kostuen %5,42 gainetik dagoela bakarrik, eta horregatik adierazi dezakegula eskatzen den kalte-ordaina gure erreferentziazko lizitazio-prezio berriaren kalkuluen azpitik dagoela eta, hortaz,

arrazoitua dagoela. "

Erreklamazioaren xede den zerbitzua etenik gabe ematen jarraitu du enpresak lizitazio berriaren ondoren, 2026ko otsailaren 27an kontratu berria sinatu eta otsailaren 28an indarrean sartu den arte, nahiz eta aurreko kontratuaren indarraldia amaituta egon.

Oinarri juridikoak

- Bidegabeki aberastea

Arrazoirik gabe aberastearen printzipioa (edo bidegabeki aberastea) doktrinak eta jurisprudentziak onartzen dute ondare-oreka berrezartzeko bide bat dela, alde batek onura bat lortzen duenean beste baten kontura, baliozko justifikazio juridikorik gabe.

Printzipio hori elementu hauetan laburbiltzen da:

a) Aberastuaren ondarea ugaritzea edo handitzea, behin betiko ondoriak sortzen dituen edozein ondare-abantaila edo -esleipen dagoenean haren alde.

b) Erreklamatzen duenaren pobretzea, diruzkoa eta nabarmena, zentzurik zabalenean ulertuta eta betiere zuzenean pairatzen duenaren portaeratik ez badator.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

d) Pobretzearen eta aberastearen arteko kausa-erlazioa, bata betearen ondorioa izan dadin. Edo, beste era batera esanda, aberastearen ondorioz pobretzea datorrela.

Kontzeptu horri dagokionez, hainbat Aholku Batzorde zentzu berean mintzatu dira: dute: 6/2022 txostena, uztailaren 28koa, Kataluniako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, 2/2023 txostena, martxoaren 17koa, Andaluziako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena eta besteak beste Espainiar Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, 76/21 espedientearen barruan.

Era berean, Auzitegi Gorenak 4480/2023 epaian onartu du printzipio hori ordezko bide gisa erabil daitekeela baliozko kontraturik ez dagoenean, baina zerbitzua benetan ematen denean.

- Ex post kontratatzeko ezintasuna
Kontratu formalik ez dagoenez eta ohiko kontratupean emandako zerbitzuak ex post legeztatzeko ezintasun juridikoa dagoenez, ordaintzeko obligazioa onartzeko juridikoki balio duen bide bakarra bidegabeki aberastearen printzipioa da.
Espedientean dauden txostenak aztertu dira.
Kontuan hartu da tokiko garapen batzordeak 2026ko ekainaren 18an aho batez emandako irizpena
Horiek horrela **Herrnaniko Osoko bilkurak aho batez onartu du**

Lehena.- GUREAK BERDEA SLU enpresak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 27 arte (biak barne) Hernaniko berdegune, parke, zuhaitz, lorategi eta konpost-guneak mantentzeko zerbitzua ematearen ondorioz suertatu den arrazoirik gabeko aberasteagatik (bidegabeki aberastea).

Bigarrena.- Ondorioz, kalte-ordaina ordaintzea, bidegabeki aberasteagatik, 11.774,59 € gehi 2.472,66 € (% 21 BEZ) guztira 14.247,25 €.
Baimendu zenbakia: A-1400/2026

Hirugarrena.- Erabakia GUREAK BERDEA SLU enpresari jakinaraztea.

9. EHBILDU ETA EAJ-PNVREN MOZIA: FORUEN ABOLIZIOA ETA ALKATEEN MUGIMENDUAREN URTEURRENA.

Alkatea: Honekin bederatzigarren atalera pasako gara, mozioen atalera. Kasu honetan, EH Bildu udal taldeak eta EAJ-PNV udal taldeak elkarrekin aurkeztutako mozioa daukagu. Foruen abolizioa eta alkateen mugimenduaren urteurrenari dagokiona. EH Bildutik Itsasok eta EAJtik Mikelek azalduko digute mozioa.
Mikel Gurutzeaga eta Itsaso Lekuona:

Mozioa.

Alkatea: Eskerrik asko, Itsaso eta Mikel. Erronda irekiko dugu. Ez dakit badagoen zerbait aipatzeko.

Lourdes Lopez: Kaixo.

Podemosetik itun sozial bat defendatzen dugu, euskal herritarrek berretsitako Estatutu berri batean gauzatuko dena, gure zerbitzu publikoak defendatuko dituena, komunaren alde egingo duena eta gure eskubide sozialak babestuko dituena. Historia gogoratzea garrantzitsua dela uste dugu, baina ezin diegu Erdi Aroko akordioei kasu egin etorkizuneko herrialdea eratzeko. Argi dago Foruek XIX. mendeko nekazarien bizimodua hobetzen zutela, baina ez gaur egun behar duguna. XXI. mendeko arazoetarako, XXI. mendeko konponbideak.

2026an 150 urte beteko dira Foruak indargabetu zurenetik. Halaber, udaletxe honen erreketaren 150. urteurrena eta Hernaniko setioaren amaieraren 152.a ere bai. Bi efemeride horiei kasurik egin gabe pasa da Udala. Dirudienez, bai EH Bildurentzat, bai EAJ-PNVrentzat, askoz garrantzi handiagoa du eskubide politiko eta ekonomikoen galerak, gure herriaren sufrimenduak baino.

Gu abstenitu egingo gara.

Alkatea: Eskerrik asko, Lourdes.

Ricardo Crespo: Arratsalde on, guztioi.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Egia esan, mozio honetako gauza batzuek harritu egiten gaituzte, eta guk uste dugu zehaztasun falta historikoak daudela. Uler dezakegu agian EAJk mozio mota hau aurkeztea, bere izaeraren barruan *Jaungoikoa eta Lege Zaharra* zegoen oraindik. Baina harritzen gaitu EH Bilduk mozio hau aurkezteak. Ideia nazionalisten logikatik eta zenbait sinbolo sortu eta mantentzeko beharretik ulertzen dugu, baina beste sinbolo mota batzuk ere egon daitezke. Lourdesek herri honetako batzuk aipatu berri ditu, baina ikurrina legeztatzearen efemerideak ere betetzen dira, adibidez, edo alderdi politikoak eta sindikatuak legeztatzearen efemerideak, edo Estatutuarenak. Baita amnistiaren legearena ere, jende askori eragin ziona, ez bakarrik Euskal Herrikoari.

Mozio honetan bi une historikori garrantzia eman nahi zaie, bat duela 150 urte, 1876an Errege Dekretu baten bidez egindako Foruen abolizioa. Baina ez da esaten bi urte geroago, 1878an, beste errege-dekretu baten bidez, euskal probintzietako kupoak sortu zirela altxorra asetzeko. Euskal Foruak azken batean, hiru euskal lurraldeetakoak; lau, Nafarroarekin. Baina euskal Estatutuen edo erakunde baten inguruko eztabaida politikorik ez zen izan, nik esango nukeenez, Espainiako bigarren Errepublika arte, agian urte batzuk lehenagora arte.

Lourdesek ondo zioen bezala, duela 150 urteko efemeride hori, beharbada, landaren eta hiriaren arteko gerra zibila izango zen. Pribilegioak mantendu nahi zituen landa eremuaren eta hiri berriaren artean, merkataritza, bazetorren gizarte berri hori... Eta horren adibide gisa, eta gogoratu behar dut, Bilintxen heriotza izan zen, Donostia karlisten aurrean defendatuz. Ez dut uste Bilintx euskaldun ez izatearen susmagarria zenik. Liberala zen. Hori zen bere arazoa.

Eta EH Bilduk mozio bat aurkezteak harritzen gaituela esaten dudanean, Frantziako iraultza gaitzesten dela ematen duelako esaten dugu. Iraultza frantsesak Iparraldeko euskal Foru horiekin amaitu zuelako. Baina Frantziako iraultzak eskubide unibertsalak ekarri zituen. Orduan, harritzen gaitu Frantziako iraultza gaitzesteak, nik uste baitut ezkerretik defendatu beharko genituzkeela pertsonei eskubideak ematen dizkieten iraultza mota horiek.

Bestalde, gogoratzen den bigarren efemeridea alkateen bilera da, esango nuke justu 77 alkaterena; Bergaran. 77 alkate, bide batez, garai hartan ezin zelako bestela izan, alkate frankistak. Beharbada ideologia tradizionalekoa, katolikoa. Ez alferrik, ekitaldi hura eukaristia batekin hasi zen, une hartan. Agian batzuk ez duzue jakingo. Eta, gainean, alderdi komunistaren pankarta bat zegoen, txistu egin ziotena. Bitxia.

Gainera, 77 alkatek, ulertzen dut, euskal herritarren ordezkaritza deitzen zioten beren buruari. 77 alkate... Gipuzkoan 88 udalerri ditugu gaur-gaurkoz. Gaur egun, garai hartan ez. Nafarroatik, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik joandakoak... Hiriburuetako bat ere ez. Hiriburuetako bat ere ez. Alkateak, zinegotziak, gero alderdi demokratikoetarako trantsizioa egin zutenak, EAJn amaitu zutenak, Ezker Abertzalearen gertuko alderdietan amaitu zutenak, UPNn ere amaitu zutenak, UCDn... Bitxia.

Mozio honekin ospatzen ari garen bi efemerideak horiek dira. Horregatik, berriro diot, ideario nazionalistaren logikatik ulertzen dugu agian horrelako ekintzak aldarrikatu behar direla, baina guk ezin dugu partekatu. Beraz, aurkako botoa emango dugu.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo. Ez dakit EAJtik eta EH Bildutik erantzunik eman nahi den.

Mikel Gurutzeaga: Bai, ospatu daitezke hainbat efemeride eta ospatu ditzakegu denak eta denez hitz egin. Baina kasu honetan bi hauen urteurrena da, zehazki. Eta gure alderdiei iruditu zaie egokia dela eta nik uste dut arrazoi onak daudela bertan, eta egiteko zerbait izan daitekeela. Besteak baita ere. Denak. Kontutan eduki behar da, historia garrantzitsua da, gertatu den guztia garrantzitsua da; baina hau ere bai. Eta hauek gure ustez garrantzia berezia daukate.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel.

Itsaso Lekuona: Hasteko, ildo beretik, begira zenbat efemeride ekarri behar izan dituzuen ez dituzuela babestu nahi guk ekarri ditugun bi efemerideak. Nahi baduzue, efemeride guzti horiek gogorarazteko mozio bat aurkeztu, aurkeztu dezakezue eta askorekin bat egingo dugu. Batak ez du bestea kentzen. Arazoa seguru aski da Euskal Herriaren burujabetza aldarrikatzeko erabiltzen ditugula bi efemeride hauek. Burujabetza politikoa galdu genuen momentu historiko bat gogorarazi dutelako ere. Eta gero, EH Bilduk zergatik bat egiten duen honekin. Aipatu dituzu 77 alkate horiek. Tartean guk, adibidez, Jose

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Hernaniko Udala

Luis Elkoro bezalako alkate ohiak dauzkagu eta berak herri honi egindako ekarpena behin eta berriz aldarrikatuko dugu EH Bildutik udal honetan eta behar den tokietan.

Beraz, mozio hau aurkezteko gure arrazoiak argi ez badaude, Elkororen izena ekarri nahiko nuke hona.

Alkatea: Eskerrik asko, Itsaso. Ez dakit beste ezer badagoen esateko. Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara. Foruen abolizioa eta alkateen mugimenduaren urteurrena goraipatzeko EH Bilduk eta EAJ-PNVk aurkeztutako mozioaren aldeko botoak? EH Bildu eta EAJ udal taldeenak. Kontrakoak? Euskal Sozialistak udal taldearenak. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak**. Hortaz, mozioa onartu egiten da.**

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	15	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu. (EHBildu) 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. (EHBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. (EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena. (EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca. (EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre. (EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes. (EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso. (EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. (EHBildu) 12. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 13. Andoni Amonarraiz Gómez.(EAJ-PNV) 14. José Antonio Cuesta Solé(EAJ-PNV) 15. Ismael Ganchegui Gonzalez.(EAJ-PNV)
KONTRA	**2**	1. Ricardo Crespo Rubio (PSE-EE) 2. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE)
ABSTENTZIOAK	**2**	1. Jaione Aristregui Cao. (EP-OH) 2. Lurdes López Gorrotxategi. (EP-OH)

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

2026. urteak garrantzi historiko eta politiko berezia du Euskal Herriarentzat. Izan ere, beste zenbait mugarriren artean –hala nola, Eusko Jaurlaritza eratu zela 90 urte betetzen dira– aurten bi efemeride nagusi ditugu: batetik, 1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena; eta, bestetik, 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena.

1876ko uztailaren 21eko legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenaren abolizioa ekarri zuen, Bigarren Karlistadaren amaieraren testuinguruan. Nafarroa Garaiaren kasuan, foru-araubidearen eraldaketa eta burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 urteen artean, Frantziako iraultzaren eskutik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa gertatu zen. Hiru prozesu horiek, bakoitza bere une historikoan eta bere berezitasunekin, Euskal Herriko lurraldeek mendeetan garatutako instituzio, eskubide historiko eta burujabetza politikoaren galera eta murrizketa ekarri zuten. Erabaki haiek herri borondatearen gainetik ezarri ziren, eta ondorio sakonak izan zituzten Euskal Herriaren egituraketa instituzionalean, lurralde-artikulazioan eta autogobernuan.

1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren amaieraren testuinguruan eta trantsizio politikoaren atarian, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren. Alkateen Mugimendu hark Foruen abolizioaren mendeurrena baliatu zuen Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko.

1976ko adierazpen hartan jasotako espirituak gaurkotasun osoa du oraindik ere. Izan ere, udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun politiko eta instituzionala funtsezkoa izan da, eta gaur egun ere udal erakundeek herritarren borondate demokratikoaren adierazpide hurbilena izaten jarraitzen dute.

Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaiela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean beren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; ala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungi ezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez bait zegoen foraltasun zaharrean, eskubide

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.

Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta erabakiaren jabe behar dugula izan.

Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzukidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa, gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.

Erronka horiei guztiei ezin zaie behar bezala erantzun eskumen mugatuekin. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatzeko.

Horregatik, oroimen historikoaren aitortzak gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatu behar du.

Horregatik guztiagatik, Bergarako Udalbatzak honako hau erabaki du:

ERABAKIAK

Lehena. Bergarako Udalak bat egiten du Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrenaren eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenaren oroitzapenarekin, eta bi efemeride horien garrantzi historiko, politiko eta instituzionala aitortzen du.

Bigarrena. Udal honek aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa Frantziako iraultzarekin gertatu zela 1789 eta 1790 artean; horrez gain, aitortzen du 1841ean Nafarroa Garaian, eta 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezarritako foru-erregimenaren murrizketa eta abolizio prozesuek euskal lurraldeen jatorrizko eskubide historikoen eta burujabetza instituzionalaren galera ekarri zutela. Era berean, aldarrikatzen du eskubide horiek ez direla iraungi, ezta herri borondate demokratikoaren ordez kanpoko erabakiz deuseztatu ere.

Hirugarrena. Udal honek berresten du Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna eta nazio izaera duen herria dela, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurraldeetan duela bere leku geografikoa eta euskal nazioa osatzen duten herritarrek dutela beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea.

Laugarrena. Udal honek aldarrikatzen du beharrezkoa dela foru integrazioaren eta burujabetza osoaren bidean urrats berriak egitea, eta, horretarako, Euskal Herriko lurraldeen eskubide historikoak eta autogobernua eguneratzea, gaur egungo behar demokratiko, sozial eta instituzionaletara egokituz.

Bosgarrena. Udal honek aitortzen du udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun erabakigarria, bereziki foru tradizioan, udal demokrazian eta herri ordezkaritzan; eta konpromisoa hartzen du etorkizunean ere Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoan, erakunde demokratikoen rola indartzeko eta hauen artean, bereziki, udal erakundeena.

Seigarrena. Udal honek bat egiten du 2026ko uztailaren 19an Bergaran antolatuko den ekitaldi politiko-instituzionalaren helburuekin, Alkateen Mugimendua gogoratzeko, 1976ko udal ordezkarien ekarpena aitortzeko eta Euskal Herriaren eskubide historikoen aldeko konpromisoa berritzeko.

Zazpigarrena. Udal honek mozio hau helaraziko die Euskal Herriko gainerako udalei, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari, egoki joz gero, berorri atxiki dakizkien.

10. INFORMAZIOA ESKATU ETA ELKARTRUKATZEKO PUNTUA.

Alkatea: Honekin ez-ohiko deialdia izanda, eskaera eta galderen tarterik ez dago, baina gai zerrendan informazioa eskatu eta elkar trukatzeko puntua ere jarri dugu. Ez dakit hemen zerbait badagoen puntu honetan aipatu, galdetu edo egin nahi dena...

Mikel Gurutzeaga: Bai, hiru gauza ditugu aipatzeko. Gaur bertan jakin dugu igerilekuan langileenganako mehatxu larriak, oso larriak gertatzen ari direla. Jarri nahi dugu mahai gainean gai hau eta pentsatzen dut Udal bezala erantzun beharko geniokeela arazo honi.

Alkatea: Ez dut ezer esan, hiru puntu aipatu dituzulako eta lehenengoa aipatu duzu. Jarraian esan hirurak, mesedez.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Mikel Gurutzeaga: Egoera hau oso larria dela, mehatxuak oso larriak direlako. Heriotza mehatxuak direla esan digute eta langile asko ari dira mehatxu hauek jasotzen. Eta Udal langileak dira... Nik uste dut zerbait egin behar dugula hau saihesteko.

Bigarrena, Ezkiaga pasealekuko zuhaitz batzuei lotu zaizkie toldo batzuen sokak edo eusteko moduak, eta pentsatzen dugu natura zaintzeko helburua baldin badaukagu Tilosetan ere egin behar dugula. Eta ezin direla, inolaz ere, zuhaitzak erabili toldoak eusteko edo beste edozer gauza eusteko. Gertatu daiteke ostegunean galerna bat edo ekaitz bortitz bat, eta zuhaitzak, bai sendo daudenak edo ez hain sendo daudenak, kalte handiak izan ditzakete. Eta lehengoan esan genuen Bozeramaile Taldean eta ez dakit zerbait egiten ari den, baina larria iruditzen zaigu.

Eta hirugarren puntua, urtero bezala gure herria pankartaz eta kartelez bete digute. Ez gaude batere ados ezta eroso ere, egoera honekin. Berriro ere. Gainera, pankarta hauetako gehienak egileak berak sinatuta daude. Gaur bertan etxebizitza pribatuetara igo dira eskailera luze batekin, ia bigarren solairuraino. Etxe pribatuen bigarren solairuraino. Inolako baimenik gabe, inolako segurtasunik gabe... eskailera luze batekin... Ez dira udal langileak. Ez dugu ulertzen egoera hau. Eta, honetaz aparte, herria pankartaz josita dago.

Gure ustez, egoera honek ez du bermatzen Sanjoanak jai inklusiboak izateko Udalak duen edota denok daukagun helburua. Hernaniar guztionak diren festak inklusiboak izateko, herritar guzti-guztien elkar errespetu osoz, jai giro alai, zintzo eta jator batean igarotzea besterik ez da behar, festak inklusiboak izateko.

Besterik ez, Sanjoanak ondo pasa.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel.

Hiru gai, nik uste dut Udalari zuzenean dagokiona erantzungo dugu.

Asier Mingo: Bai, hasteko ongi etorri, esango dizuet. Ongi etorri, tamalez, gauza horiek gertatzen direlako, azken urteetan horretan buru-belarri lanean ari garelako, eta gaurkoan ekarri duzue gaia hona. Irtenbidea topatu nahian aritu gara azken hiru urte hauetan, lan mordoa egin dugulako kanpo-igerilekuetan hori aldatzeko, baina denok dakigun bezala, gizartean gertatzen diren gauzak gertakari horiek badaude, errealak dira, gure udal langileak babesten ditugu, aurreko bi urteetan jarri genuen dagoeneko sorosle laguntzaile bat non atean egoten den harrerakoei laguntzen eta bertan sortzen diren ilarak eta egoera desegokiak bideratzeko. Eta harriduraz, pleno batera ekartzea gai hori iruditzen zait zalantzan jartzen duzuela egiten den lana; eta poza hartzen dut, gure herrian gertatzen diren gauzen berri edukitzeagatik eta hona ekartzeagatik. Gure bidetik jarraituko dugu lanean, langile horiekin egunero daukat harremana eta bestela galdetu beraiei. Udaltzainak ere bertaratzen dira arazo jakinak gertatzen direnean. Baina, ikusten duguna da oso oso zaila dela ordu guztietan norbait, hau da, udaltzain bat egotea harreran bertan, han gerta daitekeenaren edo ez daitekeenaren peskizan.

Orduan, gure partetik, jarraituko dugu egunero egiten dugun bezala lanean, irtenbidea bilatu nahian; baina egia da ez dela foro erraz bat, kalean gertatzen delako eta edonor sartu daitekeelako bertara, eta edonork eduki dezakeelako jarrera inzibiko bat han, hemen eta edonon. Orduan, alde horretatik harridura, gaia horrela ekartzeagatik hona. Nik uste dut lehenagotik ere hitz egin dugula honen inguruan, baina tira.

Alkatea: Nik uste dut erantzuteko asmoa badaukazula. Egingo dugu beste erronda bat.

Mikel Gurutzeaga: Tira, harridura gaia ekartzeagatik... Gaur bertan jakin dut eta nik uste dut, gaia larria dela hemen aipatzeko. Gaur ez dago prentsako inor edo herritarrik, baina nik uste dut gaia eztabaidatu daitekeela. Eta, ongi etorriak gai honetara? Agian nire akatsa izan da, baina nik gaur jakin dut, benetan. Agian gai bat zen batzordeetan aipatzeko edo beste nonbait, ez dakit. Agian nire akatsa izan da. Baina nik ez nekien gaur arte. Eta, iruditu zaigu gaia oso larria dela. Eta, izan da larria lehenago ere e, ez dut esan nahi ez dela ezer egin. Larria denez, nik uste dut neurriak hartu behar direla eta lanketa egiten ari baldin bada, ba ondo. Eta jarraituko dugu gaia.

Alkatea: Erronda ixteagatik, itxiko dugu Asierren erantzunarekin.

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Asier Mingo: Nik ez diot garrantzia kendu nahi, are gehiago, gu asko arduratzen gaituen gaia da. Azken urteetan asko landu duguna. Eta espedienteak ireki ditugunak igerilekuan egoten direlako jarrera desegokiak. Eta espediente horiek irekitzen dira. Gauza da administrazio publikoan, eta hori ere zuek ezagutzen duzue, espediente batzuk bere eragina edukitzeko denbora bat behar dutela eta izapidetze batzuk behar dituzte. Eta izapidetze horiek ondo egin behar dira. Horretarako dauzkagu udaltzaingoak hartzen dituzten denuntziak edo atestatuak, ondoren hor datoz gure eragiteko tresnak. Hortaz, aurreko urtean bertan arazo hau gertatzen ari zenean hartu ziren erabakiak, espedienteak ireki ziren, jendea gelditu zen igerilekura sartu ezinik, eta aurten ere ari gara lan horretan. Horregatik esaten nuen harriduraz, osoko bilkura bat erabiltzea gaur enteratu zaretelako. Oso ondo iruditzen zait hori, ba nik esan nahi dut azken hiru urteetan dagoen arazo bat dela, heldu diogula, baina ez daukagula barita magikorik; eta zuek halakorik baduzue, eskertuko genuke batzorde batera eramatea, zuk batzordea aipatu duzulako, jakiteko zuek zer egingo zenuketen EAJ bezala, igerilekuan horrelakorik gertatuko ez dela ziurtatzeko. Hori egiteko gai bazarete, mesedez, ateak irekita dauzkazue. Etor zaitezte, eskaini eta ea lortzen dugun.

Alkatea: Eskerrik asko, Asier. Erronda bukatzeko, aipatu dugu eta bozeramailea bat da alderdi bakoitzeko. Errespetatu egingo dugu hori eta ez ditugu arauak aldatu interesatzen zaigunerako. Arau batzuk badaude erreglamenduan jasota. Eta ez hitza kentzeagatik e, tarteak izango baititugu hitz egiteko, naturaltasun guztiz. Baina hemen txandak baditugu eta ezin duguna da txandak saltatzen ibili. Bozeramaileak izendatuta daudenean ere, bozeramaileek beraien papera badute. Beti hala jokatu baldin bada, behintzat, eta ez interesatzen zaigunean jokatzeko arauak aldatu.

Honekin, ez-ohiko pleno honen bukaerara iritsi gara.

Aipatu dut Udalari dagokionari erantzungo geniola. Hori ez da Udalaren funtzionamenduei dagokiona eta hori da erantzuna.

Bai, jasota gelditzen da esan duzuna. Gainontzekoan, Udalak daukana, hori da erantzutekoa.

Honekin aipatu ez-ohiko deialdian egindako osoko bilkura izan dela hau. Ez-ohiko deialdian Sanjoanei dagokionez. Eta ari naiz ikusten, eta ezin dut jarraitu ikusten ditudalako jarrera ez oso egokiak, pleno batean edukitzeko, hainbat ordezkariren partetik. Hemen hitz egiten ari garenean ikusten ditudalako mugimendu eta irribarre eta barre desberdinak. Eskertuko nuke, mesedez, bukaera emate aldera, mantendu ditzagun formak eta egokitasunak pleno batean egoteko. Mesedez.

Esan bezala, ez-ohiko deialdian Sanjoanak badatozelako. Denei Sanjoan zoriontsuak opa, aske bizi ditzagula, tentuz ere, alerta gorrian gaudelako. Honekin, joango gara informatzen egitarauan aldaketak izango direlako, egin beharko ditugulako ezinbestean, batez ere, kolektibo zaurgarrienak ere eguzkitara esposizio gehiegi ez izateko. Orduan, joango gara informatzen arau orokorrak, eta zenbait ekimen lekuz aldatu beharko baititugu ziurrenik. Udalak dituen komunikatzeko ohiko bideetatik egingo dugu.

Bitartean, denek ondo pasa dezagula, aldarrikapenez betetako festak izan daitezela, aldarrikapenak bai baitira herri honen askatasunerako zentzua eta nortasuna ere. Aldarrikapenak askatasunera eramaten gaituzte eta plazerez gozatzea eta aldarrikapenak inondik inora ez baitaude kontrajarrita. Eta hala izan daitezela gure festak, beti izan diren bezala.

Ondo pasa denak.

Hernanin, 2026ko ekainaren 22an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Hernaniko Udala

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

EKS | CSV: ESKU8678eadd-099b-4929-9b61-4a8e127a3a52

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010